



Orioko Udalaren plantillan hutsik dagoen udal kanpineko zuzendari lanpostu bat lehiaketa bidez hornitzeko hautaketa-prozesua arautzeko oinarriak.

1. Deialdiaren xedea.

Orioko Udalak udal kanpinerako zuzendari bat hartuko du lanerako 2016ko martxoaren 1ean hasi eta lanpostua dagokion oposizio-lehiaketa irekiaren bidez betetzen den arte eta, edozein kasutan, aurtengo denboraldi ofiziala amaitu arte (2016ko azaroaren 15ean aurreikusita dago).

Hartuko den langilearen kontratua lan-zuzenbideko erregimenean egingo da, denboraldi baterako eta lanaldi osorako.

Aukeraketa prozesua lehiaketa izango da, eta merezimendu hauek baloratuko dira: lan-erperientzia, prestakuntza osagarria eta atzerriko hizkuntzen ezagupena; horretarako, eskaerarekin batera, curriculuma aurkeztu beharko da. Elkarrizketa bat egingo da, izangaiak lanpostua betetzeko duten egokitasuna neurtzeko.

Ordainketa-maila: UDALHITZeko ordainsari orokorren 12. maila (2.290,85 euro gordin hileko).

2. Ardurak eta eginkizunak.

Orioko udal kanpinaren arduradun nagusi gisa, kanpinaren zuzendaritza, gestio eta kontrolaz arduratuko da, Udalak lanpostu horretarako onartuta daukan eginkizunen zerrenda betez.

3. Izangaien baldintzak eta eskakizunak.

Onartua izateko eta, kasua balitz, lehiaketan parte hartzeko, nahitaezko baldintzak izango dira honakoak:

- a) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez izatea.
- b) Europar Batasuneko kide diren edozein Estatutako naziotasuna izatea eta EBn emandako eta Espainiako estatuak onetsitako nazioarteko Itunen aplikazioa tarteko, langileen zirkulazio librea aplikagarri zaion Estaturen bateko naziotasuna izatea.
- Europar Batasuneko kide diren Estatuetak naziotasundunen bikotekideek ere parte hartu ahal izango dute, legez bananduta ez badaude; era berean, haren ondorengoek eta bikotekidearenek ere, beti ere bi kideak legez bananduta ez badaude, eta hori, bai hogeita bat (21) urtetik beherakoak izanda edo hortik gorakoak eta euren kontura bizi direnak izanda ere.
- c) EGA titulua edo baliokideren bat izatea (Europako Hizkuntzen Marko Bateratuko C1 maila).
- d) Honako tituluetako bat izatea: Turismoko unibertsitateko diplomatura, turismo-enpresetako eta jardueretako teknikaria, turismo gradua edo baliokideren bat.
- e) Ingelesezko First Certificate titulua edo baliokideren bat izatea (Europako Hizkuntzen Marko Bateratuko B2 maila)



f) Lanpostuko eginkizunetan ohiko jarduna eragotz dezakeen edo haiek bete ahal izateko bateraezina den gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

g) Diziplinako espediente bidez zerbitzutik kenduta ez egotea, Herri Administrazioei edo konstituzio-organoei nahiz autonomia-erkidegoetako estatutu-organoei dagokienez, eta ebazpen judizialaren arabera erabateko desgaiuntzarik edo desgaiuntza berezirik ez izatea, ez enplegu edo kargu publikoak betetzeko, ez funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko, ezta, lan-kontratuko langileen kasuan, zerbitzutik kendu edo desgaitu duten lanpostuan langileak zituen eginkizunen antzekoak betetzeko.

h) Ezgaitasun kasutan sarturik ez egotea eta abenduaren 26ko 53/1984 eta apirilaren 30eko 598/85 errege dekretuak bateraezinezkotzat deklaraturiko jardueretan ez aritzea.

4. Eskaerak eta curriculumak aurkeztea.

Orioko udal bulegoetan eta www.orio.eus web-orrian jaso daitekeen eredu ofizial eta arautuari egokituko zaio eskaera.

Lehiaketan parte hartzeko eskatuz beteko diren eskaerak Udaleko alkateari zuzenduko zaizkio, eta eskaera horiek, onartuak izateko, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

a) Deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela azaldu beharko dute izangaiek. Baldintzak betetzeko epemuga eskaeraren aurkezpenarena izango da.

b) Lehiaketan baloratzekoak diren merezimenduei buruzko datuak curriculumean azaldu beharko dira.

c) Eskaerarekin batera curriculuma aurkeztu beharko da, merezimendu guztiak behar bezala egiaztatuz, eta atxikituz NANaren fotokopia eta deialdian parte hartzeko eskatzen diren tituluen fotokopia konpultsatuak.

5. Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahai kalifikatzailea Orioko Udaleko Ogasun, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileko kideek osatuko dute.

6. Lehiaketa.

Eskaera-orrian aurretik adierazitako eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Baloratuko diren merituak honako hauek dira:

a) Lan-esperientzia.

Lan-esperientzia, antzeko zereginetan, eremu publiko edo pribatuan. Gehienez, 10 puntu, 0,15 hilabete osoagatik.

Hilabete bakoitzeko emango diren puntuak zehazteko, egiaztatutako esperientziarekiko lotura izango da kontuan, baita intentsitatea ere.



ORIOKODALA

Euskaraz
bizi-bizi

Administrazio publikoak edo enpresak emandako egiaztagirien bidez egiaztatu beharko da esperientzia, eta kontratuaren edo izendapenaren iraupena, lanaldia eta betetako lanpostua adierazi beharko dira. Izangaiek Gizarte Segurantzaren lan-bizitzaren kopia aurkeztu beharko dute.

Atal honetan ez dira baloratuko Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 96.1 artikuluan ezarritako behin-behineko lanpostuetan egindako zerbitzuak, ezta bekak edo prestakuntzako praktikak ere.

b) Prestakuntza osagarria

Egindako ikasketak, graduatu-ondoko unibertsitate-ikastaroak edo unibertsitate batek emandako master-ikastaroak eta erakunde ofizial batek antolatutako prestakuntza-ikastaroak, jardunaldiak eta abar baloratuko dira, betiere lanpostuaren eginkizun eta edukiekin erlazionatuta badaude. Gehienez 10 puntu, 0.02 puntu ordu bakoitzeko.

Horretarako, beharrezkoa izango da prestakuntzaren xedea eta iraupena zehazten duen bertaratze ziurtagiria edota diploma.

c) Atzerriko hizkuntzen ezagupena

Gehienez 10 punturekin baloratuko dira honako hizkuntzen ezagupenak:

- CAE titulua edo baliokidea (2 puntu), Proficiency titulua edo baliokidea (3 puntu).
- Atzerriko beste hizkuntzen ezagutza egiaztatua (frantsesa, alemana...). Hizkuntza bakoitzeko 2 puntu jasoko du gehienez.

Azkenik, elkarrizketa bat egingo da, izangaiek lanpostua betetzeko duten egokitasuna neurtzeko. Elkarrizketa horretan, gehienez, 10 puntu lortu ahal izango dira.

Izangaietako inork ez baditu betetzen lanpostua egoki betetzeko beharrezko baldintzak, Udalak aukera izango du deialdia hutsik uzteko.

Orio, 2016ko urtarrilaren 22a